

Aurrera pausuak eman diren arren, oraindik ere genero arraila nabaria da.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan, 2020ko martxoaren 15ean ospatuko den azoka honek andra sortzaile eta ekintzaileak ikustarazteko tresna bat izan nahi du. Eta hauen zeregina agerira ekartzeko eta gogoeta egiteko aukera

3. AGIRIAK, BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA

Agiriak:

AGIRI HAUEK ERANTSI BEHARKO ZAIZKIO ESKAERA ORRIARI:

- **Eskabide-orria, eredu ofizialean.** Aitorpena oso-osorik bete beharko da: eskatutako datu guztiak adierazi ezean, eskabidea ezetsi ahalko da.
- Eskatzailearen **nortasun agiriaren** fotokopia.
- Eskatzailearen **erroldatze ziurtagiria.**
- Eskatzailea **Jarduera Ekonomikoetan alta** emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofizial eguneratuaren fotokopia, azokan merkaturatzen dituen produktu edota zerbitzuetako edozeini dagokion kategorian.
- Merkaturatuko diren **produktuen edota zerbitzuen deskribapena.**
- **Produktu edota zerbitzuen argazkiak**

Bete beharreko baldintzak:

- **Emakumea izatea.**
- **Jarduera Ekonomikoetan alta** emanda egotea.
- Partehartzaile bakoitzak **eskaera bakarra** aurkeztu ahal izango du.
- **18 urtekoa edo 18 urtetik gorakoa** izatea.
- **Sorkuntza eta ekintzailetzaren** ondorio diren produktu edota zerbitzuak eskaintzea.

1. KOKAPENA

Eguraldi ona badago, Dimako plazan izango da eta **euria edota haizea** iragarrita badago, frontoi txikian izango da.

Erakusketa eta salmentarako **ordutegia 12:00etatik 15:00etara** izango da.

9:00etatik aurrera, partehartzaileek plazan kotxea sartzeko aukera izango dute.

4. AUKERAKETA PROZEDURA

Jatorria:

Arratiarra.....	5 puntu
Bizkaitarra.....	3 puntu
Euskal Herrikoa.....	2 puntu
Beste jatorriren batekoa.....	1 puntu
Arreta euskaraz izateko aukera ematea bezeroari.....	5 puntu
Jardunak Arratian izatea egoitza (saltokia,...).....	5 puntu

Puntu gehien lortu dituzten **15 eskatzaile aukeratuko dira**, baina erreserbarako beste 5 geratuko dira, azken momentuko egoeraren batengatik aukeratuak izan direnen bat ordezteko.

2. ESKAINIKO DIREN BALIABIDEAK

Partehartzaile bakoitzeko gehienez mahai **1 eta 2 aulki utziko dira**. Mahaiak tolesgarriak dira eta bere neurriak 180 x 74 x 74 dira.

Partehartzaile bakoitzeko jaima bat.

5. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Arratiako Udalen Mankomunitatea.

Elexalde 49, Igorre

Berdintasuna2.arratia@bizkaia.org

Edozein zalantza edo informazio gehiagorako: **94 631 17 17 / 688 62 73 93**

Eskabideak 2020ko **otsailaren 26ko 14:00ak arte jasoko dira**. Printzipioz, ez da partehartze eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Bakarrik deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira onartu ahal izango da epea gaintu ostean aurkeztutako eskabideak.

Martxoak 15
DIMAN

ANDRA EKINTZAILE ETA SORTZAILEEN AZOKA

ONARRIAK